Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Alkatetza
Alcaldía



Auzotar agurgarriak:

Hemendik gutxira, auzoko konexio mekanikorako lanak hasiko dira. Proiektuak milioi erdi euro (553.000) baino gehiagoko inbertsioa eragingo du. Izan ere, igogailu bikoitzeko lotura egingo da; horiek horrela, auzoko bi guneen (goikoa eta behekoa) arteko desnibel garrantzitsua gainditu ahal izango da, eta, gainera, Ikea, San Juan, Iturribide eta Mendibil elkartzen diren gunean egin ahal izango da.

Hartutako neurria, hau da, igogailu bikoitzeko lotura, inguruan dagoen irisgarritasun arazoari eman ahal zaion erantzunik onena da; era berean, aipatutako irisgarritasun arloan dagoen araudi sektoriala ondoen betetzen duena da. Kokapen horri esker, gainera, konexioa artatutako biztanleriaren erdigunean egiten da eta posible den desnibelik handiena gainditzen da (20 metro).

Beste aukera batzuek, hala nola, gure inguruko beste herri batzuetan (Barakaldo eta Sestao) jarritako eskailera mekanikoek, Bizkaiko minusbaliotasun fisikoa duten pertsonen federazio koordinatzailearen (Fekoor) kontrako iritzia jaso dute, bai eta Justizia Epaitegien kontrako iritzia ere; izan ere, horien ezarpenaren aurka azaldu dira, eskailerak erabil ditzaketen pertsona guztien (ez soilik gurpil-aulkietan dabiltzan pertsonena, baizik eta baita haur-kotxeak edo erosketetarako orgak erabiltzen dituzten pertsonena ere) mugikortasun arazoetara egokitzen ez direlako.

Arrapalak jartzeak ere ez zituen konpontzen aintzat hartutako arazo guztiak; izan ere, egungo bideetan jarri behar ziren, gaur egun dituzten erabilerak murriztuz (galtzadaren zati bat, aparkalekuak edo espaloia barne, kendu beharko litzateke), eta, gainera,

Estimados vecinos y vecinas:

Próximamente van a dar comienzo las obras de la conexión mecánica del barrio. Este proyecto, con un coste de más de medio millón de euros de inversión (553.000), contempla una combinación de doble ascensor que va a permitir salvar el importante desnivel existente entre las dos zonas, alta y baja, del barrio y hacerlo además en un punto en el que confluyen Ikea, San Juan, Iturribide y Mendibil.

La solución adoptada, una combinación en doble ascensor, es la que mejor da respuesta al problema de accesibilidad existente en la zona, al tiempo que es la que mejor cumple y se ajusta a la normativa sectorial existente en dicha materia de accesibilidad. Su ubicación permite, además, insetar la conexión en la zona más central de la población atendida y salvar el mayor de los desniveles posibles (20 metros).

Alternativas como las escaleras mecánicas, implantadas en otros municipios de nuestro entorno, como Barakaldo y Sestao, han recibido el rechazo de la Federación coordinadora de personas con discapacidad física de Bizkaia (Fekoor), así como el pronunciamiento contrario de los Tribunales de Justicia que han dictaminado en contra de su implantación por no ajustarse a las necesidades de movilidad de todas las personas susceptibles de ser usuarias de las escaleras ( no solamente personas en silla de ruedas, también personas con un cochecito de niños o con carros de la compra...).

La implantación de rampas tampoco daban solución a todos los problemas contemplados, ya que obligaba a implantarlas en el viario existente, con la reducción de los usos que ahora contienen (parte de la calzada con sus aparcamientos o acera tendrían que ser sacrificados) y,



bateraezina zen oinezkoen goranzko eta beheranzko joan-etorriak hartuko dituen arrapala bikoitz bat atontzearekin.

Aurreikusitako lotura mekanikoa osagarri ezin hobea izango da orain dela bi urte, eta milioi bat euro inguruko inbertsioarekin, Bidekurtzio plazan abian jarri zen eta Txomin Aresti-Kandelazubieta ingurarainoko distantzia egiten laguntzen duen pasabide+igogailuarentzat.

Bizileku dugun inguruan egiten diren lan guztiek eragozpenak eta nahasmenak eragiten dituzte eguneroko bizimoduan. Ahalik eta gehien murriztu ahal izatea espero dugu. Dena dela, zuen kexa arrazoituen, ideien edo iradokizunen berri eman nahi badiguzue, jarri harremanetan Udal Bulego Teknikoarekin (94 400 80 05), Udaltzaingoarekin (94 400 80 21), edo alkatetza@leioa.net helbide elektronikoaren bitartez.

Oro har, Leioako herritarren eta, bereziki, Ikea, San Juan, Iturribide eta Mendibileko auzotarren zerbitzura jarritako azpiegitura hauek ongizate handiagoa eta bizi-kalitate hobea ekartzea espero eta nahi dut.

Agur t'erdi,



*Eneko Arruebarrena Elizondo*
Alkatea

además, era incompatible con la habilitación de un rampa doble que recogiera los flujos en sentido ascendente y descendente de los peatones.

La conexión mecánica prevista servirá de complemento ideal a la pasarela+ascensor que, hace ahora dos años y con una inversión de entorno al millón de euros, se puso en funcionamiento en la plaza de Bidekurtzio y que permite salvar la distancia existente hasta la zona de Txomin Aresti-Kandelazubieta.

Toda obra en las inmediaciones de donde uno vive genera molestias y distorsiones en la vida diaria. Confiamos en poder reducirlas al máximo. No obstante, para hacer llegar cualquier queja razonada, idea o sugerencia no dudéis en poneros en contacto con la Oficina Técnica municipal (94 400 80 05), la Policía Local (94 400 80 21) o en el correo electrónico alkatetza@leioa.net.

Espero y deseo que estas infraestructuras puestas al servicio de los vecinos y vecinas de Leioa en general y de Ikea, San Juan, Iturribide y Medibil, en particular, redunden en su mayor bienestar y su calidad de vida.

Un saludo,

www.leioa.eu
Elexalde, 1
48940 Leioa (Bizkaia)
T. 94 400 80 13
F. 94 464 28 49